ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO AKORDIOA

Sindikalismo konfederaletik desberdintasunari aurre eginez

Akordioak hiru helburutan egin du aurrera:

1. Lanpostu finko baten segurtasuna ez edukitzeagatik, aldi baterako langileentzat oso kaltegarria den administrazioetako behin-behinekotasun tasa handiarekin bukatu.

2. Hautaketa prozesuek berme juridiko guztiak edukitzea eta langile hauek urteetan eman duten zerbitzu publikoa baloratzea..

3. Bitarteko eta Aldi baterako langileen baldintzak hobetzea.

CCOO

euskadiko langile komisioak

Akordioaren ondorio nagusiak:

Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak.

Aldi baterako enplegua Tasa Gehigarriarekin egonkortzeko prozesua, Erreposizio Tasa nagusi izan gabe. 3 urtez aldi baterako lanpostuekin okupatutako plaza guztiak eskaini beharko dira, administrazio publikoetan jasota dauden lanpostuen zerrendetan, plantilletan edo bestelako giza baliabideetan egon edo ez.

Egonkortze prozesu guztiek bukatuta egon behar dute asko jota 2024ko abenduaren 31a baino lehen, luzatu ezin daitekeen data.

· Oposizio-lehiaketa edo meritu lehiaketa (lan-kontratuko langileak edo ikertzaileak) oposizio fase sinplifikatuarekin, frogak multzokatuta eta epeak murriztuta, lehiaketaren fase bat %40ko pisuarekin eta gehien bat esperientziaren balorazioarekin.

· Kalte-ordain eskubideak, 20 egun lan egindako urte bakoitzagatik, 12 hileko mugarekin hautaketa prozesuetan lanpostua eskuratzen ez duten langileentzat, eta gainera bitarteko espezifikoen zerrendetan edo lehendik daudenetan sartzea.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren erreforma:

· Disuasio neurriak eta zehapen neurriak administrazioek bete ditzaten: erantzukizunak eta kalte-ordainak, lan egindako urte bakoitzeko 20 egunekin, gehienez ere 12 hileko soldatarekin.

· Betetzen ez badute administrazioak izango dire erantzule dagozkien zehapenekin.

· Bitarteko langileekin, hutsik dauden lanpostuak betetzeko denbora muga.

Zer lortu dugu erreposizio tasa kenduta?

· Tasa Gehigarri bat baimendu da plaza guztiak deitu ahal izateko, lan zerrendetan egon edo ez, eta langile berrien kontratazioa erreposizio tasatik atera da, Gobernuak hasieran kontrako asmoa zuen arren.

· Jarraipen Batzordea eratu da, atal guztien garapen egokia zaintzeko konpromisoarekin, bereziki egonkortze prozesuetan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren aldaketan jasotakoa.

Akordio honek, apirilaren 22ko grebarekin bukatu zuten euskal sektore publikoaren mobilizazioetan planteatutako helburu nagusiei erantzuten die.

Orain, euskal Administrazioek, Eusko Jaurlaritza buru, behin-behinekotasun altuaren arazoa konpontzeko tresna hau erabiltzeko unea da.

CCOO zure eskubiden alde borrokan, laneko egonkortasuna, segurtasun juridikoarekin eta eraginkortasunez, lan baldintza duinen alde.

Afiliatu zaitez!

CCOO
euskadiko langile komisioak